| AURKIBIDEA: | ÍNDICE: |
|---|---|
| **I. EMAN BEHARREKO ZERBITZUAREN EZAUGARRIAK** | **I. CARACTERÍSTICAS DE LA PRESTACIÓN** |
| 1. KLAUSULA TEKNIKOEN PLEGUAREN HELBURUA | 1. OBJETO DEL PLIEGO DE CLAUSULAS TÉCNICAS |
| 2. KONTRATUAREN HELBURUA | 2.OBJETO DEL CONTRATO |
| 3. AURRETIAZKO INFORMAZIOA | 3. INFORMACIÓN PREVIA |
| 3.1 HASIERAKO AURREKARIAK ETA BALDINTZATZAILEAK | 3.1 ANTECEDENTES INICIALES Y CONDICIONANTES |
| 4. PROIEKTUAREN HELBURUA, ESPARRUA, BETEBEHARRAK ETA ERAIKUNTZA- BALDINTZAK | 4. OBJETO DEL PROYECTO, ÁMBITO, OBLIGACIONES Y CONDICIONES DE EDIFICACIÓN. |
| 4.1 JARDUERAREN HELBURUA | 4.1 OBJETIVO DE LA ACTIVIDAD |
| 4.2 JARDUKETA-ESPARRUA | 4.2 ÁMBITO DE ACTUACIÓN |
| 4.3 ERAIKINAREN BETEBEHARRAK ETA ERAIKUNTZA-BALDINTZAK | 4.3 REQUISITOS DEL EDIFICIO Y CONDICIONES DE EDIFICACIÓN |
| 4.4 AURREIKUSITAKO OBRAREN AURREKONTUA | 4.4 PRESUPUESTO DE LA OBRA |
| 5. JARRAITU BEHARREKO IRIZPIDEAK | 5. CRITERIOS A SEGUIR |
| 6. EGIN BEHARREKO LANEN DESKRIBAPENA: METODOLOGIA ETA EDUKIA | 6. DESCRIPCIÓN DE LOS TRABAJOS A REALIZAR. METODOLOGÍA Y CONTENIDO |
| 6.1 HASIERAKO LANAK | 6.1 TRABAJOS INICIALES |
| 6.2 OBREN EXEKUZIOAN ZEHAR EGIN BEHARREKO LANAK | 6.2 TAREAS A REALIZAR DURANTE LA EJECUCIÓN DE LAS OBRAS |
| 6.3 OBRAREN EGIAZTAPEN TOPOGRAFIKO ETA GEOMETRIKOA | 6.3 VERIFICACIÓN TOPOGRÁFICA Y GEOMÉTRICA DE LA OBRA |
| 6.4. EXEKUZIOAREN KONTROLA ETA KALITATE-KONTROLEKO PROGRAMAREN JARRAIPENA | 6.4 CONTROL DE EJECUCIÓN Y SEGUIMIENTO DEL PROGRAMA DE CONTROL DE CALIDAD |
| 6.5. SEGURTASUN- ETA OSASUN-KOORDINAZIOA | 6.5 COORDINACIÓN DE SEGURIDAD Y SALUD |
| 6.6. TXOSTENAK EGITEA | 6.6. ELABORACIÓN DE INFORMES |
| 6.7 OBREN KONTRATAREKIKO HARREMANA | 6.7 RELACIÓN CON EL CONTRATO DE OBRAS |
| 6.8. ADMINISTRAZIOAREKIKO HARREMANA | 6.8. RELACIÓN CON LA ADMINISTRACIÓN |

| | |
|---|---|
| 7. LAN - TALDEA | 7. EQUIPO DE TRABAJO |
| 8. UDALAK EMANDAKO DOKUMENTAZIOA | 8. DOCUMENTACIÓN APORTADA POR EL AYTO. |
| 9. EGINDAKO LANEN JABETZA | 9. PROPIEDAD DE LAS OBRAS EJECUTADAS |
| **II. LIZITAZIOAN AURKEZTU BEHARREKO PROPOSAMEN TEKNIKOAREN EZAUGARRIAK** | **II. CARACTERÍSTICAS DE LA PROPUESTA TÉCNICA A PRESENTAR** |
| **III. ERANSKINAK**<br>• I ERANSKINA: Uzturpe Frontoiko teilatua eta zeharrargi bertikalak eraberritzeko gauzatze-proiektua (rev. 4), Juan Antonio Aranburu Aizpuru arkitekto teknikoak idatzia. | **III.- ANEXOS**<br>• ANEXO I: Proyecto de ejecución para la renovación de la cubierta y lucernarios verticales del frontón Uzturpe, redactado por el arquitecto técnico. Juan Antonio Aranburu Aizpuru |
| **1. KLAUSULA TEKNIKOEN PLEGUAREN HELBURUA** | **1. OBJETO DEL PLIEGO DE CLÁUSULAS TÉCNICAS** |
| Plegu honen helburua da Tolosako **UZTURPE FRONTOIKO TEILATUA eta ZEHARRARGI BERTIKALAK ERABERRITZEKO OBRA-ZUZENDARITZAKO ETA SEGURTASUN ETA OSASUN KOORDINAZIOKO ZERBITZUAREN LANAK** definitzea eta zehaztea, eta, halaber, kontratua arautuko duten baldintza teknikoak finkatzea. | El presente pliego tiene por objeto definir y concretar **LOS TRABAJOS DEL SERVICIOS DE DIRECCIÓN DE OBRA Y COORDINACIÓN DE SEGURIDAD Y SALUD PARA LA REFORMA DE LA CUBIERTA Y LUCERNARIOS VERTICALES DEL FRONTÓN UZTURPE**, así como fijar las condiciones técnicas que han de regir el contrato. |
| **2. KONTRATUAREN HELBURUA**<br>Kontratuaren helburua da Tolosako Uzturpe Frontoiko teilatua eta zeharrargi bertikalak eraberritzeko OBRA-ZUZENDARITZA ETA SEGURTASUN ETA OSASUN KOORDINATZAILE ZERBITZUAK EMATEA**.** | **2. OBJETO DEL CONTRATO**<br>El objeto del contrato es la PRESTACIÓN DE LOS SERVICIOS DE DIRECCIÓN DE OBRA Y COORDINACIÓN DE SEGURIDAD Y SALUD PARA LA REFORMA DE LA CUBIERTA Y LUCERNARIOS VERTICALES DEL FRONTÓN UZTURPE. |
| • Lan hauek egin beharko dira: | • Las tareas a realizar serán las siguientes: |
| Goian aipatutako obren zuzendaritza fakultatiboaren lanak egitea (obra zuzentzea, obra-exekuzioa zuzentzea barne); baita segurtasunari eta osasunari buruzko koordinazio lanak, zein obren kalitate- | Realizar las tareas de redacción y dirección facultativa de las obras del Proyecto de Ejecución y Proyecto de Actuación arriba mencionado (dirección de obra y dirección de ejecución de obra), coordinación de seguridad y salud, supervisión y cumplimiento del |

| | |
|---|---|
| kontroleko programa eta hondakinen kudeaketa programa gainbegiratu eta betearaztea ere.<br><br>Zuzendaritza fakultatiboan sartzen dira, bereziki, Eraikuntzaren Antolamenduaren azaroaren 5eko 38/1999 Legean ezarritako lanak, Sektore Publikoaren Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legean eta gainerako aplikazio arauetan ezarritakoak.<br><br>Behar izanez gero, kontratu honen zereginen artean honakoak ere aurkitzen dira: txostenak egitea, ziurtagiriak egitea eta obra-bukaerako edo obra likidazioko dokumentuak egitea.<br><br><br>**<u>3. AURRETIAZKO INFORMAZIOA</u>**<br>**3.1. HASIERAKO AURREKARIAK ETA BALDINTZATZAILEAK**<br>Uzturpeko Frontoia baldintza egokietan mantentzeko obra hauek gauzatzea beharrezkoa da, bai erabilerari, bai estetikari, zein eraikuntza elementuen pixkanakako degradazioari begira ere<br><br>- Obrak honako exekuzio proiektu honen arabera burutu beharko dira:<br>**Juan Antonio Aranburu Aizpuru arkitekto teknikoak idatzitako Uzturpe frontoiko teilatua eta zeharrargi bertikalak eraberritzeko gauzatze-proiektua (4. berrikuspena).**<br><br>- Proiektuan zehazten denaren arabera, obrak egikaritzeko **epea 3 hilabetekoa** da, Eusko Jaurlaritzak hondakinak kudeatzeko baimena ematen duenetik (izapide hori egiteko aurreikusten den epea 3 hilabetekoa da). **Obrak ekainaren 15-etik irailaren 30-era bitarteko epearen barruan gauzatu beharko dira, eskola egutegian ahalik eta eragin gutxiena eduki dezan.**<br><br>* Baldintza hau obra burutuko duen enpresari ezarritakoa da, ez da kontratu honen epea. | programa de control de calidad de las obras y del programa de gestión de residuos.<br><br>La Dirección Facultativa comprende, en particular, los trabajos establecidos en la Ley 38/1999, de 5 de noviembre, de Ordenación de la Edificación, en la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público y en las demás normas de aplicación.<br><br>También forma parte de las tareas, en su caso, la emisión de informes, la expedición de certificaciones y la elaboración de documentos finales de obra o de liquidación de obra.<br><br>**<u>3. INFORMACIÓN PREVIA</u>**<br>**3.1. ANTECEDENTES INICIALES Y CONDICIONANTES**<br>La ejecución de estas obras es necesaria para mantener el frontón Uzturpe en condiciones adecuadas, y también con vistas al uso, la estética y la degradación progresiva de los elementos de construcción.<br>- Las obras se llevarán a cabo de acuerdo al siguiente proyecto de ejecución:<br>**Proyecto de ejecución para la renovación de la cubierta y lucernarios verticales del frontón Uzturpe (rev. 4), redactado por el arquitecto técnico. Juan Antonio Aranburu Aizpuru.**<br><br>**-** Según se especifica en el proyecto, el **plazo** de ejecución de las obras es de **3 meses** desde la autorización de gestión de residuos por parte del Gobierno Vasco (el plazo previsto para este trámite es de 3 meses). **Las obras deberán ejecutarse dentro del periodo comprendido entre el 15 de junio y el 30 de septiembre con el fin de minimizar la afección al calendario escolar.**<br><br>* Esta condición se establece a la empresa que va a ejecutar la obra, no es el plazo de este contrato |

| | |
|---|---|
| **<u>4. PROIEKTUAREN HELBURUA, ESPARRUA, BETEBEHARRAK ETA ERAIKUNTZA-BALDINTZAK</u>** | **<u>4. OBJETO DEL PROYECTO, ÁMBITO, OBLIGACIONES Y CONDICIONES DE EDIFICACIÓN.</u>** |
| **4.1. JARDUERAREN HELBURUAK**<br>Jardueraren helburua Uzturpe frontoiko teilatua eta zeharrargi bertikalak eraberritze obra kontrolatzea da.<br>Horretarako, plegu honetako jardueraren beharra honakoa da: obra horiek behar bezala burutu daitezela bermatuko duen obra zuzendaritza lanak dira. Gainera, obra honetan segurtasun eta osasun baldintzak betetzen direla kontrolatuko duen, eta behar izanez gero, neurri osagarriak ezarriko dituen koordinatzailearen lana ere bai. | **4.1 OBJETIVOS DE LA ACTIVIDAD**<br>El objetivo de la actividad es controlar la obra de renovación de la cubierta y lucernarios verticales del Frontón Uzturpe. Para ello, la necesidad de actuación en este pliego es la siguiente: se trata de trabajos de dirección de obra que garantice la correcta ejecución de estas obras. Además, la labor del coordinador que va a controlar el cumplimiento de las condiciones de seguridad y salud en esta obra y, en su caso, establecer medidas complementarias. |
| **4.2. JARDUKETA ESPARRUA.**<br>Proiektuaren esparrua Uzturpeko frontoia da; frontoi honen teilatuko estalkia eta itxitura bertikala, hain zuzen ere.<br>Helbidea: Santa Luzia auzoa, 26, Tolosa. | **4.2. ÁMBITO DE ACTUACIÓN.**<br>El ámbito del proyecto es el frontón Uzturpe, concretamente su cubierta y cierre vertical.<br><br>Dirección: Santa Lucía, 26, Tolosa. |
| **4.3. ERAIKINAREN BETEBEHARRAK ETA ERAIKUNTZA-BALDINTZAK.**<br>Exekuzio-proiektuak sortutako baldintza eta beharrei erantzun beharko die. Legedian agertzen diren alde teknikoak betetzen dituzten aldaketak onargarriak izango dira, betiere dagokion justifikazioa medio.<br><br>Beraz, proiektuak baldintza hauek bete beharko ditu:<br>• Eraikinaren itxiturak araudiak, EKTak bereziki, bete beharko ditu.<br>• Ezin da eraikinaren bolumetria aldatu.<br>• Obra udaletxeak onartutako exekuzio proiektuaren arabera gauzatu beharko da: Juan Antonio Aranburu Aizpuru arkitekto teknikoak idatzitako Uzturpe Frontoiko teilatua eta zeharrargi bertikalak eraberritzeko gauzatze- proiektua (4. berrrikuspena).<br><br>**4.4. AURREIKUSITAKO OBRAREN AURREKONTUA** | **4.3. REQUISITOS DEL EDIFICIO Y CONDICIONES DE EDIFICACIÓN.**<br><br>El proyecto de ejecución deberá responder a las condiciones y necesidades surgidas. Las modificaciones que cumplan los aspectos técnicos que figuren en la legislación serán aceptables, siempre que se justifiquen.<br><br>Por tanto, el proyecto deberá cumplir los siguientes requisitos:<br>• El cierre del edificio deberá cumplir las normativas, especialmente el CTE.<br>• No se puede modificar la volumetría del edificio.<br>• Las obras se llevarán a cabo de acuerdo al proyecto de ejecución probado por el Ayto.: Proyecto de ejecución para la renovación de la cubierta y lucernarios verticales del frontón Uzturpe (rev. 4), redactado por el arquitecto técnico. Juan Antonio Aranburu Aizpuru. |

| | |
|---|---|
| Exekuzio proiektuaren arabera, obrarako honako Exekuzio Material Aurrekontua **estimatu** da: **119.156,64 euro.** Beraz, obraren zenbatekoa guztira 171.573,64 euro izango da, BEZ barne (%21).<br><br>**<u>5. JARRAITU BEHARREKO IRIZPIDEAK</u>**<br>Proiektua garatzeko orduan honako irizpide nagusi hauetan oinarrituko da lana:<br><br>**5.1. ERAIKUNTZA JASANGARRIARI DAGOKIONEZ:**<br>Eraikuntza jasangarria, arkitektura iraunkorra edota ekologikoa, ingurumenarekin errespetu handiz jokatzen duena da eta energiaren erabilpen iraunkorra egiten du. Honetaz aparte,energia berriztagarrietan ikertzera behartzen du, material batzuk naturarekin duten eragina aztertzearekin batera. Material ekologikoak eta erraz birziklatzekoak erabiltzea bilatzen da. Material ekologikoa deritzogu, berauen fabrikazioa, garraioa eta biziraupena/ birziklatze/ berrerabilerari dagokionez.<br><br>Eraikuntza iraunkorrak honako alderdiak hartzen ditu kontuan:<br>• Baliabideen kontserbazioa.<br>• Baliabideen berrerabilpena.<br>• Eraikuntzarako material berriztagarrien erabilpena.<br>• Materialen biziraupena kontuan izanda, hondakinen aurrezaintza.<br>• Energia kontsumoa gutxiagotu.<br>• Material eta eraikuntzaren kalitatearen areagotzea.<br>• Ingurumenaren babesa.<br>• Eraikuntzetan inguru ez toxikoa sustatzea.<br><br>**5.2. ERAIKINAREN ERAGINKORTASUN ENERGETIKOARI DAGOKIONEZ:**<br>Helburua eraikinaren itxitura eraberritzean datza. Mantenu lanak egin behar direla aprobetxatuz eraikinaren eraginkortasun energetikoa hobetu nahi da. | **4.4 PRESUPUESTO DE LA OBRA**<br>Según el proyecto de ejecución, se **estima** un Presupuesto de Ejecución Material para la obra de **119.156,64 euros**. Por tanto, el importe total de la obra asciende a 171.573,64 euros, IVA incluido (21%).<br><br>**<u>CRITERIOS A SEGUIR</u>**<br>El trabajo se basará en los siguientes criterios principales a la hora de desarrollar el proyecto:<br><br>**5.1 EN RELACIÓN CON LA EDIFICACIÓN SOSTENIBLE:**<br>Construcción sostenible, arquitectura sostenible y/o ecológica, es aquella que es respetuosa con el medio ambiente y hace un uso sostenible de la energía. Aparte de esto, obliga a investigar en energías renovables, al tiempo que analiza la influencia de algunos materiales con la naturaleza. Se busca el uso de materiales ecológicos y de fácil reciclaje. Entendemos por material ecológico su fabricación, transporte y supervivencia/reciclaje/reutilización.<br><br>La edificación sostenible tiene en cuenta los siguientes aspectos:<br>• Conservación de recursos.<br>• Reutilización de recursos.<br>• Uso de materiales renovables para la construcción.<br>• Prevención de residuos teniendo en cuenta la vida útil de los materiales.<br>• Reducir el consumo de energía.<br>• Aumento de la calidad del material y de la construcción.<br>• Protección del medio ambiente.<br>• Fomento del medio no tóxico en las construcciones.<br><br>**5.2 RESPECTO A LA EFICIENCIA ENERGÉTICA DEL EDIFICIO:**<br>El objetivo consiste en reformar el cierre del edificio. Aprovechando la necesidad de realizar trabajos de mantenimiento se pretende mejorar la eficiencia energética del edificio. |

| | |
|---|---|
| <u>**6. EGIN BEHARREKO LANEN DESKRIBAPENA: METODOLOGIA ETA EDUKIA**</u><br><br>**6.1.- HASIERAKO LANAK**<br>6.1.1. <u>Kontratak egindako eskaintza teknikoaren eta proiektuaren analisiaren azterketa. Lan-plangintzaren azterketa.</u><br>Obra Zuzendaritzak kontratak egindako eskaintzari buruzko azterketa zehatz bat egingo du, eskaintzaren alderdi guztiak kontuan hartuta (materialak, makinak, kalitate-kontrola, langile teknikoak). Kontratak proposatutako lan-plangintza aztertuko du, baita plangintza zehazteko oinarri hartutako exekuzio-metodoak, ekipoak, materialak, azpikontratistak, e.a. ere.<br>Proiektuan aurreikusitako lanak aztertuko dira eta baita programa obraren inguruabar zehatzei egokitzen ote zaien (hasteko garaia, konponbiderik eman ez zaien eragindako zerbitzuak), helburuak lortzeko aukerak zein diren eta aurreikusi beharreko behar osagarririk badagoen. Obren exekuzio prozesua ere aztertuko da.<br>Obraren exekuzioari dagozkion helburuak lortzeko arazorik aurreikusiko balitz edota bitarteko gehiagoren beharra balego, Obra Zuzendaritzak bere oharrak azalduko ditu txosten baten bidez.<br>Hala badagokio, txosten hori Udal Zerbitzu Teknikoei aurkeztuko zaie, kontratua sinatu eta bi asteko epean gehienez ere.<br>Udal Zerbitzu Teknikoek txostena aztertuko dute eta gero agindu ahal izango dute, txostena aurkezten denetik gehienez ere bi asteko epean, egoki jotzen duten alderdiak osatzeko, edo, bestela, ezartzen diren irizpideei jarraituz, txostena errepikatzeko, onartzeko moduan dagoela ikusi arte.<br>Horretaz gain, Kontratak obrak egiten ari den bitartean aurkezten dituen bestelako Lan-Plangintzei buruz ere egin beharko da goian aipatutako Lan-plangintzaren inguruko txostena. Era berean, beharrezko gertatzen diren luzapen orokor edo partzialen inguruko txostenak ere egingo dira. | <u>**6. DESCRIPCIÓN DE LOS TRABAJOS A REALIZAR. METODOLOGÍA Y CONTENIDO**</u><br><br>**6.1.- TRABAJOS INICIALES**<br>6.1.1 <u>Análisis de la oferta técnica y del análisis del proyecto realizado por la contrata. Análisis de la planificación del trabajo</u>.<br>La Dirección de Obra realizará un estudio detallado de la oferta realizada por la contrata, teniendo en cuenta todos los aspectos de la oferta (materiales, maquinaria, control de calidad, personal técnico). La contrata estudiará el plan de trabajo propuesto, así como los métodos de ejecución, equipos, materiales, subcontratistas, etc., que sirvan de base para su definición.<br>Se analizarán los trabajos previstos en el proyecto y la adecuación del programa a las circunstancias concretas de la obra (inicio, servicios afectados no resueltos), las posibilidades de consecución de los objetivos y la existencia de necesidades adicionales a prever. También se analizará el proceso de ejecución de las obras.<br>En el caso de que se prevea algún problema para la consecución de los objetivos de ejecución de la obra o se requieran más medios, la Dirección de Obra hará constar sus observaciones mediante un informe.<br>En su caso, dicho informe se presentará a los Servicios Técnicos Municipales en el plazo máximo de dos semanas desde la firma del contrato.<br>Los Servicios Técnicos Municipales analizarán el informe y podrán ordenar, en el plazo máximo de dos semanas desde su presentación, que se completen los aspectos que estimen oportunos o, en su defecto, que se repita el informe siguiendo los criterios que se establezcan hasta que se considere que está en condiciones de ser aprobado.<br>Además, se deberá informar sobre otras planificaciones de trabajo que presente la contrata durante la ejecución de las obras. Asimismo, se elaborarán informes sobre las prórrogas generales o parciales que sean necesarias. |

| | |
|---|---|
| 6.1.2. <u>Kalitate-kontroleko programa</u><br>Obra Zuzendaritzak Kalitate Kontroleko Programaren proposamen bat aurkeztuko du.<br><br>6.1.3. <u>Zuinketaren egiaztapen-akta</u><br>Obrak hasi aurretik, hala badagokio, egin beharreko ekintzen inguruko txosten partzialez gain, zuinketaren egiaztapen-akta egingo da obren exekuzio-kontratuan aurreikusitako epearen barruan eta, horrek markatuko du obren hasiera.<br><br>**6.2 OBREN EXEKUZIOAN ZEHAR EGIN BEHARREKO LANAK**<br>Hauek dira obren exekuzioan zehar egin beharreko lanak:<br>- Udal Zerbitzu Teknikoen eta Kontrataren arteko koordinazioa.<br>- Kontratak kontratuaren baldintzak betetzen ote dituen egiaztatzeko ikuskapena eta kontrola.<br>- Obren inguruko komunikazioak eta instrukzioak egitea.<br>- Agindu liburuan egunean zehar emandako aginduak jasotzea.<br>- Exekuzioaren plangintza; diagrama partzialen banakatzearekin eta asteko zuzenketarekin, desbideraketak (arrazoiak) eta haien eragin-maila adierazita, aldi berean beharrezko neurri zuzentzaileak proposatzen direla.<br>- Kalitate-kontrolaren erregistroa; obra laginketa, entsegu, proba eta egiaztapenak, emaitzen azterketa, e.a. jasota.<br>- Obrak Pleguetan, jatorrizko Proiektuan eta behar bezala baimendutako aldaketetan jasotakoaren arabera egiten ari direla egiaztatzeko ikuskapena eta kontrola. Jarraipenerako argazkiak.<br>- Pleguetan Obra Zuzendaritzaren iritzira uzten diren alderdi teknikoak eta baldintzak proposatzea.<br>- Planoen interpretazioari, materialen baldintzei eta obra unitateen exekuzioari buruzko alderdi teknikoak definitzea eta proposatzea, beti ere kontratuaren baldintzak aldatu gabe. | 6.1.2. <u>Programa de control de calidad</u><br>La Dirección de Obra aportará una propuesta de programa de control de calidad.<br><br>6.1.3. <u>Acta de replanteo</u><br>En su caso, antes del comienzo de las obras, además de los informes parciales de las acciones a realizar, se levantará el acta de comprobación de replanteo dentro del plazo previsto en el contrato de ejecución de las obras, que marcará el inicio de las mismas.<br><br>**6.2 TAREAS A REALIZAR DURANTE LA EJECUCIÓN DE LAS OBRAS**<br>Las tareas a realizar durante la ejecución de las obras son los siguientes:<br>- Coordinación entre los servicios técnicos municipales y la contrata.<br>- Inspección y control del cumplimiento de las condiciones contractuales por parte de la contrata.<br>- Comunicaciones e instrucciones acerca de las obras.<br>- Anotación de las órdenes dadas durante el día en el libro de órdenes.<br>- Planificación de la ejecución, con desglose de diagramas parciales y corrección semanal, indicando las desviaciones (motivos) y su grado de incidencia, proponiendo al mismo tiempo las medidas correctoras necesarias.<br>- Registro del control de calidad, incluyendo muestreo de obra, ensayos, pruebas y verificaciones, análisis de resultados, etc.<br>- Inspección y control de la ejecución de las obras de acuerdo con lo recogido en los pliegos, el Proyecto original y las modificaciones debidamente autorizadas. Fotos de seguimiento.<br>- Proponer los aspectos técnicos y las condiciones que en los pliegos se sometan a la consideración de la Dirección de Obra.<br>- Definir y proponer los aspectos técnicos relativos a la interpretación de planos, condiciones de los materiales y ejecución de las unidades de obra, sin alterar las condiciones del contrato. |

| | |
|---|---|
| - Operazioen ikuskapena eta kontrola. | - Inspección y control operacional. |
| - Kontratak egin beharreko ukitutako zerbitzuen planoen lanketa ikuskatzea, bai eta haiek ordezkatzeko beharrezko diren lanena ere, hirugarren bati eragiten dioten lanen baimen-eskaeraren gaineko aholkularitza ere sartzen dela. | - Supervisar la elaboración de los planos de los servicios afectados a realizar por la contrata, así como de los trabajos necesarios para su sustitución, incluyendo el asesoramiento en la solicitud de autorización de trabajos que afecten a un tercero. |
| - Erakunde ofizialetatik eta partikularrengandik obrak egiteko eta obrak eragindako ondasunak okupatzeko baimenak lortze aldera egin beharreko atze-aurreak proposatzea, eta obrekin lotutako zerbitzu eta zortasunek sortzen dituzten arazoak konpontzea. | - Propuesta de las partes delantera y trasera para la obtención de las autorizaciones de obras y de ocupación de los bienes afectados por la obra por parte de los organismos oficiales y particulares, así como resolver los problemas de servicios y servidumbres relacionados con las obras. |
| - Kontratak aurkeztu beharreko Kalitate Kontroleko Programa ikuskatzea eta kontrolatzea, hala badagokio. | - Supervisión y control, en su caso, del Programa de Control de Calidad a presentar por la contrata. |
| - Elementu aurrefabrikatuak edo/eta industrialak obran jasotzea eta haiei buruzko txosten teknikoa egitea. | - Recepción e informe técnico de elementos prefabricados y/o industriales. |
| - Balizko gorabehera tekniko edo ekonomikoak aurreikustea eta haien konponbideei buruzko txostena egitea. | - Previsión de posibles incidencias técnicas o económicas e informe sobre sus soluciones. |
| - Kontratak instalazioei, soldadurei, egiturei, egituren eraikuntza prozesuei eta abar proposatutako konponbideei buruzko azterketa eta aholkularitza, eta konponbide horiek teknikoki eta ekonomikoki egokiak diren egiaztatzea. | - Análisis y asesoramiento de las soluciones propuestas por la contrata sobre instalaciones, soldaduras, estructuras, procesos constructivos de estructuras, etc., comprobando su idoneidad técnica y económica. |
| - Aipatutako konponbideen exekuzioa egiaztatzea. | - Verificar la ejecución de las soluciones mencionadas. |
| - Obren exekuzioen ondorioz hirugarrengoei kalterik eraginez gero, haien inguruko peritazioa eta txostena egitea. | - Peritación e informe de terceros afectados por la ejecución de las obras. |
| - Kontratua normal burutzea galarazten duten edo kontratua aldatzea aholkatzen duten obretako gorabehera edo arazoen inguruko proposamenak aldez aurretik izapidetzea, salbuespen kasuetan. | - Tramitar con carácter previo, en casos excepcionales, las propuestas de incidencias o cuestiones relativas a obras que impidan la normal ejecución del contrato o aconsejen su modificación. |
| - Obraren exekuzioaren jarraipena egitea ingurumenaren ikuspuntutik. Behar izanez gero exekuzioaren neurri zuzentzaileak proposatzea. | - Realizar el seguimiento de la ejecución de la obra desde el punto de vista ambiental. Proponer, en su caso, las medidas correctoras de la ejecución. |
| - Gorabeheren, artxibo orokorraren erabileraren eta obrako korrespondentziaren erregistroa egitea. | - Registro de incidencias, uso del archivo general y correspondencia de obra. |
| - Ziurtapenak egitea, hilabetero udalari helaraziz eta bc3 edo Presto formatuan. | - Emisión de certificaciones, con periodicidad mensual, en formato bc3 o Presto. |
| - Kontrol ekonomikorako dokumentuak, neurketen banakapena, onartutako ziurtapenak, prezioen berrikuspenak, e.a. barne. Bai eta obren amaierako | - Documentos de control económico, incluyendo desglose de mediciones, certificaciones aprobadas, revisiones de precios, etc. Así como la memoria económica final de las obras y la liquidación final. |
| | - Definir e informar de las modificaciones normales |

| | |
|---|---|
| memoria ekonomikoa eta azken likidazioa ere.<br>- Obren epea eta aurrekontua ia aldatzen ere ez duten aldaketa normalak definitzea eta haien berri ematea.<br>- Zigorrak jartzeko proposamenak egitea.<br>- Bilera guztietako aktak egitea.<br>- Obraren likidazio-proiektua egitea, dokumentu hauek barne: memoria eta bere eranskinak, planoak eta aurrekontua.<br>- Obrak egiten diren bitartean proiektu aldatu edo osagarririk egin beharra gertatuko balitz, haiek egitea eta behar bezala koadernatzea (4 ale) eta CDan edo *pendrive*-n jasotzea, memoria, planoak, Baldintza Tekniko Partikularren Plegua eta Aurrekontua barne.<br>- Obren harrera idaztea eta prestatzea. Mantentzearen inguruko txostena egitea. Txosten horretan labur-zehatz azalduko dira obren eta instalazioen ezaugarri nagusiak eta haien mantentzerako garrantzitsuak izan daitezkeen gorabehera eta alderdiak. Txosten horrek informazio grafiko ugari jasoko du lagungarri gisa: krokisak, argazkiak, e.a.<br><br>**6.3. OBRAREN EGIAZTAPEN TOPOGRAFIKO ETA GEOMETRIKOA**<br>Obra Zuzendaritza obren zuinketaren egiaztapenera eta proiektuaren egiaztapen geometrikoa egiteko bertaratuko da, Kontratarekin batera, lekuan bertan, egiteko guztiak zuinkatua eta guztiz definitua egon daitezen.<br>Edozein aldaketa edo obra osagarri egin beharra sortzen bada, horietako bakoitzerako ere egin beharko dira goian azaldutako lan horiek, bai eta Plegu honetan jasotako gainerakoak ere.<br><br>**6.4. EXEKUZIOAREN KONTROLA ETA KALITATE-KONTROLEKO PROGRAMAREN JARRAIPENA**<br>Bi atal nagusi ditu:<br>a) Materialen eta egindako obraren kalitate-kontrola, zeinak kontratuko agirietan eta kasuan-kasuan aplikagarri diren Arau Teknikoetan zehaztutakoa izango baitu kontuan.<br>b) Exekuzioaren nondik norakoak behatzea. | que apenas alteran el plazo y presupuesto de las obras.<br>- Elaboración de propuestas para la imposición de sanciones.<br>- Levantar las actas de todas las reuniones.<br>- Elaborar el proyecto de liquidación de la obra, incluyendo la memoria y sus anexos, planos y presupuesto.<br>- Elaboración y correcta encuadernación (4 ejemplares) y recogida en CD o *pendrive* de proyectos modificados o complementarios durante la ejecución de las obras, incluyendo memoria, planos, Pliego de Prescripciones Técnicas Particulares y Presupuesto.<br>- Redacción y preparación de la recepción de obras. Elaboración del informe de mantenimiento. En dicho informe se detallarán las principales características de las obras e instalaciones, así como las incidencias y aspectos relevantes para su mantenimiento. Este informe se acompañará de abundante información gráfica: croquis, fotografías, etc.<br><br>**6.3. VERIFICACIÓN TOPOGRÁFICA Y GEOMÉTRICA DE LA OBRA**<br>La Dirección de Obra asistirá, junto con la contrata y en el lugar de la obra, a la comprobación del replanteo de las obras y a la verificación geométrica del proyecto, con el objeto de que todas las tareas estén replanteadas y totalmente definidas.<br>En el caso de que se produzca cualquier modificación u obra complementaria, para cada una de ellas deberán realizarse los trabajos arriba descritos, así como los demás contemplados en el presente Pliego.<br><br>**6.4. CONTROL DE LA EJECUCIÓN Y SEGUIMIENTO DEL PROGRAMA DE CONTROL DE CALIDAD**<br>Consta de dos apartados principales:<br>a) Control de calidad de los materiales y de la obra realizada, que tendrá en cuenta lo especificado en los pliegos del contrato y en las Normas Técnicas aplicables en cada caso.<br>b) Inspección de la ejecución. |

| | |
|---|---|
| Obrak egiten ari diren bitartean Obra Zuzendaritzak obren prozesu guztira zabalduko du behaketa hori. | Durante la ejecución de las obras la Dirección de Obra extenderá esta inspección a todo el proceso de las obras. |
| Obra Zuzendaritzak uneoro eskatuko du Pleguetan exekuzio-sistemari buruz jasotakoa bete dadila. Operazioren bat Pleguetan definituta ez egotea gertatuz gero, dagokion baldintza osagarria sartzea proposatuko luke. | La Dirección de Obras solicitará en todo momento el cumplimiento de lo reflejado en los Pliegos sobre el sistema de ejecución. En el caso de que alguna operación no estuviera definida en los Pliegos, propondría la inclusión de la condición complementaria correspondiente. |
